

A stylized illustration in shades of blue and purple depicts a group of people in a meeting or discussion. The figures are simplified, with some wearing headsets. A thick red line and a blue line sweep across the lower half of the image, adding a dynamic, abstract element.

Eragin politikorako eredu dokumentua

Documento marco para la incidencia política



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA

COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

Euskal Autonomia Erkidegoan Garapenerako Lankidetzara bideratzen den zenbatekoa

(2018ko ekainaren 29an burututako Batzar Orokorrean
onartutako dokumentua)



EUSKADIKO GGKEen
KOORDINAKUNDEA
COORDINADORA
de ONGD EUSKADI

www.ongdeuskadi.org



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

1. Garapenerako laguntza ofizialaren jatorria

Nazio Produktu Gordinaren (NPG) % 0,7 Garapenerako Laguntza Ofizial (GLO) gisa bideratzeko konpromisoa Nazio Batuek 1970ean eginiko XXV. Batzar Nagusiaren ebazpenean onartu eta berretsi zuten estatu kideek. Batzar horretan erabaki zuten ekonomikoki aurreratutako herrialdeek pixkanaka handituko zutela GLO, asko jota 1975. urterako beren NPGren % 0,7ra iritsi arte, merkatuko prezioetan.

Euskal erakundeak 1985. urtean hasi ziren diru-partida espezifikoak bideratzen lankidetzarako. Baina 1994an, Aintzira Handietako krisiaren ondoren 0,7 mugimendua eta kanpaina sortu zenean, aurrekaririk gabeko herri-mobilizazioa agertu zen. Horren ondorioz, autonomia-erkidegoetako eta tokiko gobernua garapenerako lankidetzara aurrekontu-partidak bideratzen hasi ziren, eta horrela sortu zen lankidetzaren deszentralizatua; nolana ere, gehien-gehienak ez ziren beren aurrekontuen %0,7ra iritsi.

Lankidetzaren deszentralizatuaren fenomenoak bilakaera eta hazkunde nabarmena izaten hasi zen orduan: administrazio hainbat mailatan garapenerako lankidetzaren bultzatzen hasi ziren, harik eta 2010eko krisi ekonomikoak autonomia-erkidego gehienetan goranzko joera hori eten zuen arte¹.

1.1. Garapenerako Laguntza Ofizialaren definizioa

Urteetan zehar, besteak beste, bi eztabaidagai izan dira: Garapenerako Laguntza Ofizialaren definizioa, eta zer irizpide erabili behar diren diru-partida jakin bat lankidetzaren gisa hartzeko. Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen barneko Garapenari Laguntzeko Batzordeak gidatu du eztabaida, neurri handi batean. Nazioarteko erakunde hori arduratu da, gehienbat, estatu emailek emandako Garapenerako Laguntzaren Ofizialaren datuak biltzeaz eta argitaratzeaz. Gizarte zibileko erakundeek nahiz nazioarteko beste erakunde batzuek parte-hartze handiagoa izatea eskatu dute historikoki eztabaida horretan, eta zeregin garrantzitsua izan dute zifrak monitorizatzen eta irizpide estatistikoak kritikoki berrikusten.

Garapenari Laguntzeko Batzordeak honela definitzen du Garapenerako Laguntza Ofiziala: *Garapenerako Laguntza Ofiziala, beraz, Garapenari Laguntzeko Batzordearen hartzaile-zerrendan dauden herrialdeentzako fluxu edo korrante batzuek osatzen dute, baita garapenerako erakunde aldeaniztunentzako fluxu edo korranteek ere,*

1 2011 eta 2014 artean autonomia-erkidegoen Garapenerako Laguntza Ofiziala % 43 murriztu zen. Oxfam Intermón, *La Realidad de la Ayuda* 2017. Hemen eskuragarri: <www.realidadayuda.org>.

herrialde-zerrenda horretako hartzaileentzat bideratuta, hain zuzen ere. Eta, gainera: i. Erakunde ofizialek ematen dituzte, baita estatuetako eta tokiko gobernuek edo haien erakunde betearazleek ere. ii) Erakunde horien transakzioak: a) administratzen dira, batez ere, garapen bidean dauden herrialdeen garapena eta ongizate ekonomikoa sustatzeko; b) emakidak dira eta horien zati bat (% 25 gutxienez) dohaintza da (ehuneko 10eko deskontu-tasa batez kalkulatu).

Eskuragarritasuna errazteko eta interpretazio subjektiboak murrizteko, estatuek irizpide zehatzak adostu zituzten, Garapenerako Laguntza Ofizialtzat hartzen dena eta hartzen ez dena mugatzeko honako alor hauetan: laguntza militarra, bakeari eustea, polizia zibila, gizarte- eta kultura-programak, errefuxiatuentzako laguntzak, energia nuklearra, ikerketa eta antiterrorismoa. Garapenari Laguntzeko Batzordearen Estatistika Idazkaritza kontsulta-organo nagusia da, eta horra jo dezakete estatuek, gastu bat Garapenerako Laguntza Ofizial gisa kontabiliza daitekeen edo ez ebazteko.

1.2. Neurtzeko proposamen berria

Lankidetzaren egoera orokorra oso azkar ari da aldatzen. Gero eta aktore publiko eta pribatu gehiago daude, Garapenerako Laguntzaren Ofiziala gisa kontabiliza daitezkeen lankidetzajardueretan esku hartzen dutenak (baita Hegoalde-Hegoalde lankidetzajarduerak, lankidetzajarduerak, lankidetzajarduerak eta fundazio filantropiko handien lankidetzajarduerak ere), bai eta helburu globalak dituzten lankidetzajarduerak ere, populazio zehatz bat identifikatzen ez dutenak. Bestalde, 2015eko irailean, 2030 Agendan adostutako garapen iraunkorrerako helburuek ondorio estatistikoak dituzte, ondasun publiko globalen identifikazioagatik, batez ere. 2014tik aurrera, Garapenari Laguntzeko Batzordea tresna berri bat ari da lantzen, Garapenerako Laguntzaren Ofiziala neurtzeko: TOSSD, ingelesezko siglen arabera. Tresna horrek garapen iraunkorrerako laguntza ofizial guztia jaso nahi du. Orain arte, gizarte zibileko erakundeak eztabaida horretan parte hartzen ari gara, eta abiapuntua da neurketa-tresna berri hori ez dela erabili behar jarduerak apaintzeko, ezta zifrak puze ere, finantzaketa-konpromiso batzuetara gehiago hurbiltze aldera (%7ko helburua barne); izan ere, herrialde gutxiak lortu dute helburu hori Garapenerako Laguntzaren Ofizialaren 60 urte baino gehiagoko historian zehar.

2. Zer egiten dute euskal erakundeak?

Hasieratik, euskal erakunde publikoak erreferentzia izan dira Estatuan, garapenerako lankidetzari egindako aurrekontu-ekarpenei dagokienez. Eta Gasteizko Udala izan zen lehena bere aurrekontuaren %0,7 lankidetzara bideratzen. Zoritxarrez, bilakaera

hori aldatu egin da; izan ere, euskal erakundeek funtsen %17 murriztu dituzte 2009. urtetik aurrera².

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko 70 erakunde baino gehiagok bideratzen dute beren aurrekontuetako partidaren bat garapenerako lankidetzara³ baina zenbait erreferentziaren arabera kalkulatuta dago (gastuen aurrekontuak, diru-sarrera propioak, zenbait partidaren konbinazioak, etab.)⁴. Kasu batzuetan, kudeaketa-autonomian oinarrituta daude, kontabilizazioaren bikoiztasunik ez gertatzeko (adibidez, udalek beren aurrekontuaren arabera kalkulatzeko %0,7 funtsen zati bat beste administrazio publikoen transferentzien bidez jasotzen baitute). Datu horrez gain, kontuan hartu behar da zenbaitetan zaila izaten dela erakunde publikoek erabiltzen dituzten zifren berri izatea. Datu horiek bizkor eskuratu beharko litzekete, eta zehatzak eta erraz ulertzeko modukoak izan beharko lituzkete.

3. Garapenerako lankidetzaren Euskal Legea

Eusko Legebiltzarrean onartutako Lankidetzaren Garapenari buruzko 1/2007 Legeak, bigarren xedapen gehigarrian, honela dio: *Nahiz eta aurrera egin behar den, gainerako herri-administrazioekin batera, produktu gordinaren %0,7 betetzeko bidean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak arian-arian gehituko ditu garapen-lankidetzarako eta nazioarteko elkartasunerako ekarpenak, 2012ko aurrekontu orokorretan ezarritako gastu osoaren %0,7 izan daitezen.*

Beraz, Legeak epe luzerako helburu bat ezartzen du (euskal erakundeen artean Barne Produktu Gordinaren %0,7 lortzea), eta epe ertaineko helburu bat, aurrekoari arian-arian hurbiltzen joateko; hau da, 2012an aurrekontu orokorretako gastu osoaren %0,7 izateko. Barne Produktu Gordina aipatzen da, Eustatek ez duelako oraindik Euskal Autonomia Erkidearen Nazio Produktu Gordina kalkulatzeko; izan ere, hori da nazioarteko erreferentzia %0,7 kalkulatzeko.

2 2009an, euskal erakundeek 78 milioi inguru erabili zituzten lankidetzan; 2018an, berriz, 65 milioiko aurrekontua egin da.

3 Euskal lankidetzaren publikoaren azterketa 2011-2014, Euskadiko GGKEen Koordinakundea. Hemen eskuragarri: <www.ongdeuskadi.org/eu/coordinadora/documentacion_view.php?id=165&categoria=4&pagina=1>.

4 Gai horri buruz gehiago sakontzeko, kontsultatu azterketa hau: De la Fuente Pereda, Noemí eta González Martín, Miguel (2007), *Zenbakiez Haratago: la cooperación al desarrollo vasca a debate*, ALBOAN. Hemen eskuragarri: <www.alboan.org/portal/documentos.asp?id=65>.

Nolanahi ere, dokumentu hau egin den urtean (2018), Eusko Jaurlaritzak ez du Legearen parametro hori oraindik bete.

4. Euskadiko GGKE-n Koordinakundeak nola kalkulatzeko duen Garapenerako Lankidetzara bideratutako ehunekoa⁵

4.1. Aurrekontuen gaineko formula

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publiko guztietarako formula homogeneoa izateko, azterketa konparatiboak egiteko aukera emango duena, euskal Legean oinarritzen gara. Legeak tarteko formula bat ezartzen du Barne Produktu Gordinareneko %0,7ko helbururantz aurrera egiteko, "aurrekontu orokorretako gastu osoari" erreferentzia egiten diona. Urte bakoitzeko aurrekontu orokorrak onartzen dituzten dekretuen arabera, aurrekontu horietan honako aurrekontu hauek sartzen dira: Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioarena, haren erakunde autonomoenak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoenak, sozietate publikoenak, sektore publikoko fundazioenak, sektore publikoko partzuergoarena eta EITBrena. Tarteko formula hori foru-aldundietan eta udaletan ere aplikatzen dugu.

Hortaz, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio guztietan formula komuna erabiltzen dugu, garapenerako lankidetzara bideratzen den zenbatekoaren ehunekoa kalkulatzeko: gastu guztien aurrekontu propio bateratuak.

- *Zenbakitzailea edo zatikizuna*: erakundearen aurrekontuari dagokion Garapenerako Laguntza Ofizialaren zenbatekoa da, haren erakunde autonomoak barne, eta hor sartzen dira lankidetzaren alorrean aritzen diren zuzeneko langileen gastuak (1. kapitulua), gastu arruntak (2. kapitulua) eta transferentzia edo diru-laguntza arruntak (4. kapitulua), eta, kasu batzuetan, kapital-transferentziak (6. kapitulua), halakorik balego.

Erakunderen bateko lankidetzaren alorreko langileak beste zerbitzu batzuekin partekatzen baditu, eta lankidetzaren alorreko langileentzako berariazko partidariak ez badu, partekatutako langile-zerrenda, horren kostua eta zerbitzu bakoitzari ezarritako dedikazioa eskatuko zaizkio erakundeari. Zerrenda hori ez badu, sailleko langileen guztizko gastuaren banaketa proportzionala egingo zaio zerbitzu bakoitzari, haietako bakoitzaren aurrekontuen arabera. Datu horietan oinarrituta, lankidetzara egokitutako langileen kostua aterako da.

5 Kapitulu honetan ageri diren kontzeptu guztiak dokumentuko I. eranskinean daude azalduta.

Prozedura berari jarraituko zaio, gastu arrunt partekatuei dagokien 2. kapituluaren kasuan.

- *Izendatzailea edo zatitzailea*: Gastu guztien aurrekontu propio bateratua da.
 - Bateratua: barne hartzen ditu erakunde autonomoak, enpresa-erakunde publikoak, merkataritza-sozietate publikoak, fundazio eta partzuergo publikoak eta erakundearen aurrekontu orokorrek barne hartzen duten beste edozein erakunde.
 - Propioa: erakundearena, behin konpromiso instituzionalak kenduta, halakorik balego, hiru diputazioetan gertatzen den bezala.
 - Guztizkoa: gastu guztiak; hau da, aurrekontu ekonomikoaren 9 kapituluak (arruntak 1.etik 5.era, kapitala 6.a eta 7.a eta finantzak 8.a eta 9.a).

Bateratua erabiltzeak erakunde bakoitzak kudeatzen duen guztizko gastuaren errealitatea islatzen du; propioak edo administrazio orokorrekoak, berriz, azterketa konparatiboa desitxuratzen du, erakunde bakoitzaren kudeaketa-politika deszentralizatuaren arabera; hau da, sortu dituen mendeko erakunde publikoen kopuruaren arabera.

Diputazioei dagokienez, euskal finantzaketa-ereduaren arabera, euskal ogasuna hiru mailatan dago antolatuta: Euskadiko Ogasun Nagusia, hiru foru-ogasunak eta tokiko ogasunak. Foru-ogasunek egiten dute zerga-bilketako ekitaldi garrantzitsuena, haiek kudeatzen baitituzte Ekonomia Itunetik ondorioztatutako sarrerak⁶. Sarrera horiek, behin Estatuari ordaindu beharreko kupoa kenduta, Euskadiko Ogasun Nagusiaren eta lurralde historikoetako foru-ogasunen artean banatzen dira. Euskadiko diru-sarrera orokorren %90 inguru osatzen du horrek. Gainera, erakunde horiek udalen diru-sarreraren zati bat finantzatzen dute (ia erdia), haien gainean dagozkien finantza-tutoretzako eskumenetan oinarrituta.

Ogasunetako gainerako diru-sarrerak erabilera librekoak dira, erakunde horietako berezko zerbitzuak eta eskumenak finantzatzeko.

Diputazioak zerga-biltzaileak eta banatzaileak direnez, neurrigabea izango litzateke %0,7 aplikatzea guztizko aurrekontu bateratuan. Horregatik, aurrekontu propio bateratua erabiltzen dugu erreferentziatzat.

6 Azaroaren 25eko 27/1983 Legea, Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta Bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundearen Arteko Harremanari Buruzkoa.

4.2. Barne Produktu Gordina gaineko formula

1/2007 Legeak ondo adierazten duen bezala, eta Euskadiko GGKEen Koordinakundeak horrela adierazi du *Gipuzkoako lankidetza publikoaren azterketa 2005-2007* lanetik abiatuta, erakunde bakoitzaren aurrekontuei erreferentzia egiten dion kalkulu-formula aurrerapauso bat da, euskal administrazio guztien artean EAEko NPGren %0,7a lortze aldera, nazioarteko konpromisoek ezartzen duten bezala.

ALBOAN erakundeak argitaratutako *Euskadiko garapenerako lankidetza eztabaidan* izenburuko azterketa-liburuan, kalkulu-metodologia bat eskaintzen da, EAEn esku hartzen duten administrazio publikoak ados jar daitezen Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren Erakunde arteko Batzordean, bai erantzukizunak banatzeko formula bat ezartzeko, bai jakiteko bakoitzak zer kopuru emango dion garapenerako lankidetzari, denen artean EAEko BPGd-aren % 0,7 lortu arte, harik eta haren Errenta Nazional Gordina lortu arte.

Beste autonomia-erkidego batzuek ez bezala, EAEk Estatuarekin kupo-sistema duenez, errazago kalkulatzeko da BPGd-arekiko ehunekoa, bai eta EAEko administrazio publikoen arteko erantzukizun-banaketa ere.

Adostasun hori premiazkoa da. Izan ere, ALBOAN erakundearen azterketan proposatzen den formula aplikatuz gero, Euskal Autonomia Erkidegoan lankidetzara bideratutako Barne Produktu Gordinaren gaineko ehunekoa, gaur egun, %0,15 ingurukoa da. Ehuneko horrek zalantzan jartzen du transmititzen dugun Euskadi solidarioaren irudia. Hori dela eta, euskal erakundeek eta gure sektoreak oso kezkatuta egon beharko lukete, datu horien arabera, Euskal Autonomia Erkidegoa Estatuaren, Greziaren, Estoniaren eta Esloveniaren antzeko mailan baitago, eta Europako batezbestekotik oso urun. Aidwatch-en arabera, 2017an 5 herrialdek lortu zuten %0,7aren helburua: Danimarkak, Luxenburgok, Suediak, Erresuma Batuak eta, lehen aldiz, Alemaniak⁷. Europa Batasunan, Garapenerako Laguntza Ofiziala % 27 igo dela onartu arren, laguntza puztua ere igo egin dela agertu da, Garapenerako Laguntza Ofiziala gisa mozerrotzen baitira errefuxiatuentzako laguntzak edo zorra arintzeko eragiketak.

7 <<https://concordeurope.org/2017/10/17/aidwatch-report-2017>>.

5. Euskadiko GGKE-n Koordinakundeak nola aztertzen duen Garapenerako Lankidetzaren aurrekontuaren osaketa

Garapenerako lankidetzara bideratutako zenbatekoaren guztizkoa bezain garrantzitsua da nola banatzen den hura osatzen duten kapitulueta eta aurrekontu-partidetan.

Zenbatekoaren guztizkoa sailen arteko barneko banaketaren mende dago, baita Ogasun Sailak erakundearen aurrekontu orokorren banaketa-irizpideak definitzeko izango duen eginkizunaren mende ere. Hala ere, Garapenerako Lankidetzara bideratutako zenbatekoaren guztizkoaren banaketa, aurrekontu hori osatzen duten kapitulueta eta aurrekontu-partiden artean, garapenerako lankidetzaren zerbitzuaren eta haren sailaren zuzendaritzaren mende dago ia erabat.

Erakunde publikoak aurrekontu parte-hartzaileak abian jartzearen alde egiten ari direnez, joera horretako lan-ildo argi bat izango litzateke lankidetzaren aurrekontua administrazio publikoaren eta gizarte zibileko erakundeen artean erabakitzea, garapenerako lankidetzaren politiketan erantzunkidetasun handiagoa lortze aldera.

Horretarako, *garapenerako lankidetzaren aurrekontuaren hasierako osaketaren* taula bat erabiltzen dugu, II. Eranskinean deskribatzen dena. Taula horretan, kontzeptuak ordenatuta ageri dira, aurrekontuaren sailkapen ekonomikoaren arabera, baina azpitaldetan multzokatuta. Azterketa homogeneizatzeko, taula horri zenbait egokitzapen eta birsailkapen egiten dizkiogu, eta horrela taula hau lortzen dugu: *garapenerako lankidetzaren aurrekontuaren osaketa birsailkatua*.

Taula horretatik, zenbait ehuneko eta adierazle lortzen ditugu, eta haien bilakaera aztertu ondoren, epe laburreko eta luzeko helburuen irizpideak finka daitezke haietako bakoitzean. Izan ere, helburuen irizpide horiek elkarrekin erabaki beharko genituzke administrazioaren eta gizarte zibileko erakundeen artean.

6. Zer eskatzen diegu erakundeei?

- *Koordinazioa.* Alde batetik, koordinazio handiagoa behar da, zenbaketa-sistemen berdintasuna lortzeko, erakundeen arteko datuak alderatzeko aukera emango duena. Bestetik, koordinazioa behar da administrazio-mailen arteko erantzukizun-irizpidearen definizioa adosteko, aukera emango duena BPGd-aren %0,7 ahalik lasterren lortzea, Europar Batasunak ezartzen duen bezala⁸. Badakigu erronka handia dela, hori dela eta erakundeek bi ehunekoak erabiltzea proposatzen dugu, bata gastu guztien aurrekontu propio bateratuaren gainean eta bestea Euskal Autonomia Erkidegoko Barne Produktu Gordinaren gainean.
- *Planifikazioa.* Gastu guztien aurrekontu propio bateratuaren irizpidea tarteko pauso gisa erabiltzea eta egutegi bat antolatzea, erakunde bakoitzak dagokion Barne Produktu Gordinaren %0,7aren zatia aurreikusitako epeetan emateko.
- *Parte-hartzea eta erantzunkidetasuna.* Gure ustez, erakunde publiko askoren aurrekontu parte-hartzaileak garatzearekin bat etorritik, oso logikoa eta komenigarria izango litzateke administrazio publikoaren eta gizarte zibileko erakundeen artean lankidetzaren aurrekontuaren osaketa negoziatzea eta adostea, berezko politika diseinatzean eta egitean erantzunkidetasun handiagoa lortze aldera.
- *Gardentasuna eta kontuen ematea.* Gure iritziz, ezinbestekoa da administrazioek garapenerako lankidetzari egindako ekarpenei buruzko informazio publikoa eta eguneratua izatea (aurrekontuan jasotakoak eta burututakoak), ekarpen horien ebaluazioak egin ahal izateko. Ezinbestekoa da, gainera, herritarrek dokumentu eta datu publikoak bizkor eta modu ulergarrian eskuratzeko aukera izatea.

8 Kontseilu Europarraren bilera Bartzelonan, 2002ko martxoan. Bilera horretan erabaki zen Europar Batasuneko estatu kideek modu indibidualean lortuko zutela 2010erako Nazio Errenta Gordinaren % 33 eta BPGd-aren %0,51.

1. ERANSKINA (*aurrekontu-esparruko legezko kontzeptuak*)

Euskal administrazio publikoen aurrekontuak

Kontzeptuak

Administrazio-aurrekontua

Gobernuaren administrazio-jarduera legalki kontrolatzea du helburutzat.

Sailkapena

- *Ekonomikoa*: diru-sarreraren eta gastu publikoen izaeraren arabera.
- *Funtzionala*: egin beharreko funtzio publikoen izaeran oinarritutakoa.
- *Organikoa*: gastua zein unitate organikori esleitzen zaion islatzen du, baita aurrekontu-partida bakoitzean kontsignatutako kredituak zein kudeaketa-organori esleitzen zaizkion ere. Aukerakoa da eta erakunde bakoitzaren arau partikularrean oinarrituta dago.

Aurrekontu-partida

Gutxieneko aurrekontu-unitatea da, eta gastuen eta kredituen dagozkion kontsignazioak bideratu behar zaizkio.

Sailkapen funtzional eta ekonomikoa uztartzen ditu gutxienez.

Sei zifrak osatzen dute gutxienez, hamar zifraraino, azken hori barne.

Aurrekontu-loturak

Aurrekontua Egikaritzeko Oinarrietan adierazten dira.

Sailkapen ekonomikoa

Diru-sarreraren eta gastu publikoen izaera ekonomikoaren arabera.

Mailak:

Nahitaezkoak eta itxiak: kapituluak (digitu 1), artikulua (2 digitu), kontzeptuak (3 digitu).

Borondatezkoak eta irekia: azpikontzeptuak (2 digitu gehiago).

Gastu arruntak

1. kapitulua: Langile-gastuak.
2. kapitulua: Ondasun-gastu arruntak eta zerbitzuak.
3. kapitulua: Finantza-gastuak.
4. kapitulua: Transferentzia arruntak.
5. kapitulua: Irekia utzi da.

Kapital-gastuak

6. kapitulua: Inbertsio errealak.
7. kapitulua: Kapital-transferentziak.

Finantza-gastuak

8. kapitulua: Finantza-aktiboak.
9. kapitulua: Finantza-pasiboak.

- **Aurrekontu orokorra:** erakundearen eta erakundean parte hartzen duten mota guztietako entitate, organismo autonomo, sozietate eta fundazioen aurrekontuak biltzen ditu.

- *Orokor totala:* Aurrekontu horietako 1. kapitulutik 9. kapitulurainoko kapitulu guztiak biltzen ditu, erakundearen eta haren organismo autonomo, sozietate eta fundazioen arteko barne-eragiketen doikuntza, ezabapen eta birsailkapenak gutxitu gabe.

- *Orokor kontsolidatua:* Aurrekontu horietako 1. kapitulutik 9. kapitulurainoko kapitulu guztiak biltzen ditu, erakundearen eta haren organismo autonomo, sozietate eta fundazioen arteko barne-eragiketen doikuntza, ezabapen eta birsailkapenekin gutxituta.

Foru-aldundien kasuan, kontsolidatu propioaren beraren orokor kontsolidatutik konpromiso instituzionalak (Estatuarentzako kupoa, Euskal Autonomia Erkidegorentzako ekarpena, Udal Finantzaketarako Foru Funtza, Batzar Nagusientzako ekarpena) kentzearen ondoriozko diru-kopurua da kontsolidatu propioa.

- *Aurrekontu propioa:* erakundeari dagokiona da, betiere kontuan hartu gabe erakundearen eta erakundean parte hartzen duten mota guztietako entitate, organismo autonomo, sozietate eta fundazio guztien aurrekontuak.

Foru-aldundien kasuan, konpromiso instituzionalak (Estaturentzako kupoa, Euskal Autonomia Erkidegorentzako ekarpena, Udal Finantzaketarako Foru Funtsa, Batzar Nagusientzako ekarpena) ez dira kontuan hartzen oraingoan ere.

Honako hauek osatzen dute:

- 3. kapituluaren (Finantza-gastuak) eta 9. kapituluaren (Finantza-pasiboak) batura da.
- Kudeaketako aurrekontu propioa edo kudeaketa-aurrekontu arrunta: aurrekontu propioetik finantza-karga kentzean geratzen den diru-kopurua da.

Honako izen hau hartzen du aurrekontu propioak hainbat erakundetan:

- *Eusko Jaurlaritza*: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarena
- *Arabako Foru Aldundia*: Foru Aldundiarena
- *Bizkaiko Foru Aldundia*: Foru Aldundiarena
- *Gipuzkoako Foru Aldundia*: Foru Administrazioarena
- *Bilboko Udala*: Udal Erakundearena
- *Donostiako Udala*: Udalarena
- *Gasteizko Udala*: Toki Erakundearena